

Erroibarko onomastikaz ohar batzuk

Orreaga Ibarra Murillo

0. Sarrera

Artikulu honen xedea da aztertzea zein nolako onomastika erabiltzen zen duela mende batzuk Erroibarren. Honetarako bi dokumentu hartu ditugu oinarritzat, 1644 eta 1726 urteetako “Apeamenduak”, berauetan etxeen jabeak eta etxearen izenak ere agertzen zaizkigu, zergak ordaintzeko egiten baitzituzten agiri hauek. Txosten hauen transkribapena ahalik eta fidelen egiten saiatu gara, jakina, era laburrean erakutsi dugu, Notarioek erabilitako sarrera luze horiek ekidinez etab.

Bietan bailarako alkatea, errejidorea eta apeza elkartzen dira bidalitako komisarioarekin. 1726koan horrelaxe dio “En el lugar de Espinal, a veinte y siete de octubre del año mil setecientos veinte y seis el S. D.n Joseph de Santisteban y Torres Comisario nombrado por los tres estados de este Reino para efecto de hacer Apeo y Calculo de las Casas vecinos y moradores de la Merindad de Sanguesa..”. Eta horrela jarraitzen zuten herriz herri.

Jakin badakigu gauza berri anitz ez digutela erakutsiko Trento Kontzilioaren ondoren izen kristauak eremu guztietan nagusitu baitziren (cf. Salaberri & Gorrotxategi 2000: 14). Nolanahi dela ere, garai honetako eraskusgarri argiak dira. Beste alde, herri hauetako egoeraz hainbat gauza argitzen dizkigute, zenbat etxe zeuden herri bakoitzean, zein etxek ez zuen pagatzen, egoera ekonomikoa etab. Esan bezala, izendapen pertsonala Trento Kontziliaren ondoren sistematizatu zen behin bertirako, honenbestez nahiko berria dela esan dezakegu.

Dokumentu hauen bidez ikusten dugu etxe gehienetan jabea bizi zela, horrela dioskute: “vive su dueño propietario”, baina 1644. urtekoan zortzi maizter bizi ziren

dira eta 1726. urtekoan 30. Bestalde, emakumeak agertzen zirenean alargunak izaten ziren eta gainera pobreak, horrela agertzen da Olondritzen: “casa de Echechi- quia de Juan de Arrieta, casera Isabel de Olondriz, viuda y pobre de solemnidad”. Errealitate hau ez da harrigarria, Bermeon 1511. urtean egindako azterketa batean egoera bera islatzen da (ik. Cierbide 1998: 431).

Jakina, filologiaren ikuspuntutik oso interesgarriak dira orrialde hauetan ager- tzen diren etxeen izenak, baina, horiek beste lan batean aztertuko dira.

1. Antroponimoak

Hurrengo lerrootan antroponimoak izanen ditugu aztergai, eta urteka egingen dugu.

1644. urtea. Gizonezkoak

Juanes (42)	%32'3
Miguel (28)	%21'5
Martin (19)	%14'6
Sancho (12)	% 9'2
Pedro (7) (Po.) (2)	% 6'9
Juan (5)	% 3'8
Garcia (5)	% 3'8
Nicolas (2)	% 1'5
Beltran (2)	% 1'5
Tristant (1)	% 0'7
Fernando (1)	% 0'7
Ez dago emakume izenik.	

1724. urtea. Gizonezkoak

Juan (61), Ju. (3)	% 33'5
Martin (38)	% 20'2
Miguel (21)	% 11'1
Sancho (17)	% 9'0
Pedro (14)	% 7'4
Beltran (6)	% 3'1
Fernando (4)	% 2'1
Bernardo (3)	% 1'5
Garcia (2)	% 1
Guillen (2)	% 1
Bartolome(2)	% 1
Joseph (2)	% 1
Julian (2)	% 1
Leon (1)	% 0'5
Antonio (1)	% 0'5
Tomas (1)	% 0'5
Estevan (1)	% 0'5

1724. urtea. Emakumezkoak

Graciana (3)	% 1'5
Maria (2)	% 1
Cathalina (1)	% 0'5
Graciosa (1)	% 0'5

1.1. Gizonen izenak

Bistakoa denez, antroponimia toponimia baino askoz ere aldakorragoa da eta, poliki poliki moden eta joeren eraginez izen batzuk ala besteak hedatzen joaten dira toki bakoitzean. Horrela zioen Mitxelena:

Los nombres de persona, por el contrario, emigran con éstas y aún sin éstas, porque la moda puede difundirlos: cambian como los usos y costumbres. (Mitxelena 1987: 120)

Gure dokumentuetan oinarrituz, mende batean eta bestean, erabilitako izenetatik *Juan* da gehien agertzen den antroponimoa. 1644. urtekoan *Juanes* ere dugu antzetzan idatzirik; suposatzen dugu *j* igurzkari sabaikariarekin ahoskatuko zela. Bistan denez, *Juan* eta *Juanes* garaikideak dira, nahiz gure agirien arabera, XVII. mendean *Juanes* gehiago erabiltzen den.

Nolanahi dela ere, XVI. eta XVII. mendeetan egindako beste ikerketetan badakigu Nafarroa osoan gehien azaltzen den antroponimoa *Juan* dela (cf. Iñigo & Salaberri 1994: 1419). Saraguetak zioenez (1981: 29), *Juan* izena jartzen zen sorginen sinismenarengatik: “Juan denek eramaten zute. Sorgiñen sinisteagatik paratzen ziote, *San Juanes* badukalakoz sorgiñen kontra indarra”. Izena eta sinismena loturik agertzen dira oraingoan. Mitxelena eta Irigarainen ustez (1955: 3-4), hau izan zen beste arrazoi bat izen zaharrak baztertzeko, eta erlijio izenei atxikitzeko.

Izen hau da gehien agertzen dena Euskal Herrian urrutiago dauden beste herrietan ere, horrela Bermeon 1510. urtean *Juan* da maiztasun handiena daukana: 29'5 %, eta ondoren *Martin* (18,62 %) (Ik. Cierbide 1998: 431). Egoera antzekoa ikusten da Arabako Aramaion, *Juan* da maiztasun handieneko izena (cf. Libano 1998: 471) eta Burgosen ere Erdi Aroan: “los más utilizados en el período (años 900 a 1200) fueron *Pedro* y *Juan*” (ik. Batzuk 1995: 238).

Erroibarren ere 1644. urtean *Juanes* da garaile: %32'3, ondoren Miguel: 21'5 %, eta hirugarrenik *Martin*, % 14'6. 1726. urtean, berriz, portzentai hauek ditugu: *Juan* % 33'5, *Martin* % 20'3, eta hirugarrenik Miguel, % 11'1. Deigarria da urte hauetan suertatzen den homonimia ugaria, baina, kontuan izan behar arrunta izan dela Erdi Arotik honako garai guztietan. Horrela Bourinek Erdi Aroko antroponimia aztertzen duenean kristautasunaren eragina azpimarratzen du:

Estos nuevos modos de denominación conducen, evidentemente, a multiplicar los homónimos, debido a lo mucho que se repiten los nombres de los príncipes y los de los primeros santos de la cristiandad. Porque, alrededor del año mil no se toman los nombres de los santos locales sino los de los más eficaces intercesores universales, Pedro y Esteban o bien Martín (Bourin 2001: 195)

Argi utzi behar da dokumentu hauetan hipokoristiko gutxi agertzen direla, agian, Notarioaren eskuek ematen dioten itxura ofizialarengatik edo. Laburtzapenak, or-

dea, badira. Hauetako bat *Po.* < *Pedro* edo *Pero*-ren laburtzapena, eta Ju. (< Juan) ikur bat gainean duena edo M.n (Martin).

Kontuan izan behar da izen administratiboa eta benetan erabiltzen dena ez da tozela beti bat. Horrela dio Kremerek:

Las diferencias dependientes del tipo de documento y de su expedidor, persisten todavía y, de ninguna manera me parece aconsejable que se identifiquen las prácticas administrativas con el uso real de los nombres de persona (Kremer 1988: 1590)

Hona gaur egun hain erabiliak ez diren izenak:

Garcia. Gaur abizen soila bada ere, Erdi Aroko izena *Garçea* zen eta tradizionalki (*h*)artz “oso” izenarekin lotu zaio. Irudi denez, *gazte* adjetiboaren jatorrizko forma izen honetan dugu. Testigatutako aldaerak izaten dira *Garcia*, *Garci*, *Garsea*, eta *Gartxot* txikigarria, ibar honetako etxe-izenak eman dituen. Izen honek tradizio handia izan du Pirineo guztian Erdi Arotik hona.

Sancho da beste izen bat, egun erabilera urria duena, baina, urte batzuk lehenago oso ohikoa zena, euskaraz *Antso* < lat. *Sanctius*. Euskal Herrian, Nafarroan eta Errioxa guztian erruz erabili den izena izan da hau:

El cuarto ámbito regional está constituido por el País Vasco, Navarra, La Rioja y Aragón. Su característica es, como hemos dicho antes, una temprana concentración del <<stock>> de nombres: entre ellos, los más frecuentes son: García, Sancho, Iñigo, Fortún y Jimeno (Batzuk 1995: 396).

Guillen gaurko ‘Guillermo’ –Erdi Aroko izena– maiz agertzen da, jakina denez. Gaur ohikoa ez bada ere, frantsesaren eragina adierazten du, fr. *Guilhèm* baita.

1.2. Emakumeen izenak

Suposatzekoa denez, emakume izen gutxi agertzen dira. 1644. eko txostenean ez dago batik ere, eta 1726. ekoan % 3’5, besterik ez. Bestalde, andreen izenak agertzen direnean, alargunak izaten dira, honenbestez beti “viuda de” eransten zaie. Kasu askotan gehienetan jartzen zen “Que es pobre de solemnidad”. Honek argi adierazten du etxeko jabea nor zen eta zein nolako estatusa zuten bakarrik bizi ziren emakumeek, alegia, beti gizonarekiko menpekotasun ekonomikoa eta soziala adierazten zuten. Honenbestez beti, emakumearen ondoan horrelako gehitze bat jartzen zaio. Erdi Aroan, itxura denez, antzera jokatzeko zen: “(...) permanece constante para todo el período de estudio la forma de <<nombre + designación complementaria>> para nombrar a las mujeres” (Batzuk 1995: 238).

Egoera bera ikus daiteke egindako beste azterketa batzuetan ere, horrela Aramaion 1510eko agiri batean “la proporción de registros según el sexo es de 20 nombres de mujer (8’33 %), frente a 209 que nominan al hombre (87’08 %)” (ik. Libano 1998: 471).

Agertzen diren emakume izenak *Maria*, *Cathalina* izen arruntak dira, eta gaur hain entzunak ez diren bi hauek: *Graciosa* < fr. *Gracieuse* eta gazt. *Graciosa*, latineko *gratiosa*-tik ‘eragin handikoa, amoltsua, adeitsua’ eratorria. Bestalde *Graziana* dugu, latineko *Gratiana* izenetik sortua, *gratia* ‘mesedea’ hitzetik datorkigun izena.

Honainokoa laburbilduz, orokorrean ikus daiteke nola latin eta grekeraren tradizio izenak erabiltzen diren, portzentai oso handian. Horrek ez du erran nahi antro-

ponimo euskaldun jator gehiago ez zirenik, hemengo ikertzaileek mende hauetan egindako azterketetan frogatu dutenez (ik. Salaberri & Iñigo: 1994) maiz etxe-izenetan izkutaturik agertzen baitira. Ibar hauetan ere baditugu bestelakoak, baina horiek beste lan baten helburu izanen dira. Orain gure xedea izan da dokumentu hauetan oinarrituz, zein erabiltzen ziren frogatzea, ez etxe-izenak aztertzea.

Azkenik, xumea bada ere, azpimarratu behar da Pirineoz bestaldeko eragina. Hau dela eta, *Guillen, Nicolas, Beltran, Bernardo, Tristan* bezalako izenak ohikoak izan dira mugaz bestaldeko eremuan, eta honenbestez, garai bateko frankoen eragina islatzen dute.

2. Abizenak eta toponimoak

Jakina da euskal abizen gehienek jabearen jatorria adierazten dutela, Mitxelenak (1973: 21) dioenez:

(...) los apellidos que, como en el documento antes citado, señalan la procedencia -pueblo o casa- de su portador, y que constituyen sin duda la parte más numerosa de los apellidos vascos posteriores.

Ez euskaraz bakarrik, Erdi Aroko antroponimian ere, toponimo ugari agertzen dira izenari atxikiak, eta agertzen direnean eramaten duenaren jatorria adierazten dute, edota arbaso baten jatorria. García de Cortazarrek dioenez.

En este sentido, el abandono del nombre único y su sustitución por el nombre + nombre del padre en genitivo (el patronímico) o por formas más complejas como nombre + patronímico + topónimo podrían ser síntomas, a escala europea, de modificaciones en la estructura de la familia. (García de Cortazar 1995: 284).

Aztertutako patronimiko gehienek honako egitura jarraitzen dute: izen berezia + *de* + toponimoa. Kasu gutxiagotan honako beste hau: izen berezia + kalifikatzailea + *de* + toponimoa: *Pedro Luxea de Lusarreta* (Lin). Azkenik bada sail bat honelako egiturari erantzuten diona: antroponimoari eransten zaio beste abizen bat, jaioterriari edo bizi zen tokiari edo etxeari erreferentzia egiten diona. Hona 1644. urteko batzuk: *de Elicalde, de Azcarate, de Balança, de Sola, de Michetena, de Ybañez, de Aldaba, de Echegoyen, de Arreche, de Urrutia, de Ricalde, de Garro, de Hualde, de Urrutia, de Yrari, de la Orden*. Eta 1724. urtekoetan beste hauek: *de Vidariz, de Elguera, de Ezpelegui, de Echegoyen...*

Oro har, egitura konplexuagoko abizenik ez dago, alegia txosten honetan orokorrean ez dago goitizetik, edo lanbide izenik, horrelakoak etxe-izenetan agertzen dira. Gehienak hiru elementukoak dira, eta eskuarki topografikoak, honako hauek bezala: *Recalde, Urrutia, Echegoyen, Hualde...* etab. Nolanahi dela ere, artikulua honetan garrantzi berezia emanen diegu herri izenak diren toponimoei, gisa honetan, onomastika izanen da herri hauen historian arakatzeko lanabes egokia, biztanleen etorrerari eta jatorriari buruzko argibide. Zentzu honetan datu hauek interesgarriak dira historialari eta hizkuntzalariarentzat, jendearen mugikortasunaz hainbat datu ematen digutelako.

Bistan denez, XVI. mende bukaeran hasten dira deiturak poliki-poliki finkatzen eta izenari itsasiak agertzen, herriaren jatorria zein den kontuan hartu gabe. Esatera-

ko, *Sancho de Galduroz*, Olondrizko *Agedarena* etxekoa, gero Mezkiritzera ezkonduko da eta abizen horrekin geldituko da, alegia “Sancho de Galduroz” da, ez *Sancho de Olondriz. Horrela, mende honetan abizen hori aldagaitz bihurtzen hasia da.

Gauza bera azpimarratzen du Belaskok (1996: 23):

De hecho hasta finales del XVI, por lo menos, el grueso de la población navarra toma como apellido el nombre de la localidad de procedencia. Sólo cuando es generaliza la costumbre de mantener el primer apellido del padre invariable se romperán los lazos entre apellido y origen geográfico de su portador.

Libanok ere Gipuzkoako eta Bizkaiko Erdi Aroko abizenen jatorria aztertzen du, eta horrelaxe dio: “y desde fecha temprana es decir 1050, en el caso de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, comienzan a circular las designaciones personales compuestas, identificadoras regularmente del nombre de lugar o procedencia -manifestada bajo la fórmula *de + topónimo-*” (cf. Libano 1998: 474) eta bi orrialde beherago diosku hau dela gehien erabiltzen den egitura: “De un total de doscientos cuarenta vecinos que figuran en el padrón, un 81’9 % emplean la fórmula, preposición *de* más procedencia, frecuente en el territorio que analizamos desde la Alta Edad Media”.

Urrutiago dagoen Burgosen Erdi Arotik aurrera erabiltzen da egitura hau. “La cronología de aparición del topónimo en las formas antroponímicas, muestra, igualmente, una cierta diversidad (...). Por el contrario en el alfoz, aparecen ya en la segunda mitad del siglo X y lo harán hasta el siglo XII, en cuya mitad se fechan las tres cuartas partes de las menciones” (Batzuk 1995: 249). Montenegrok ere (1995: 203) Liebanako (Cantabria) Erdi Arko toponimia aztertzean gisa honetako antroponimoen ugaritasuna azpimarratzen du: “En las formas complejas de los campesinos destaca la abundancia de nombres de dos elementos formados por nombre + topónimo”.

Agiri hauetan agertzen diren toponimo gehienak Erroibarko herrietakoak dira, 1644. dokumentuan honako alditan agertzen dira idatzirik¹: Erro (9 aldiz), Espinal (6), Mezquiriz (6), Esnoz (6), Cilbeti (6), Ardaiz (5), Linçoaín (4), Viscarret (3), Loiču (2), Larrayngoa (2), Olondriz (2), Ayncioa (2). Erroibarko herrien izenak % 35’5 alditan ateratzen dira.

Maiztasunean hurrengoak dira Artzibarko herrietakoak, 1644.ko agirian Artzibarko beste herri hauek ditugu: Saragueta (4 aldiz), Lusarreta (2), Lacabe (1), Imizcoz (1), Arrieta (1), Zandueta (1) Artozqui (1), Equiza (1), Urroz (1). Osotara, % 8’6 dira Artzibarkoak.

Esteribarko batzuk ere baditugu: Çubiri (1), Saigos (1). Lizoaingoak: Laboa (1), eta Arriasgoitikoak: Zunzarren (1), Çalba (1), Urricelqui (1). Urraul Goitikoak ere badira: Zabalza (1) eta, azkenik, Iruñerriko Eguesibarkoak ere bai: Elcano (2). Osotara, %6 dira haran hauetakoak.

Kasu gutxitan agertzen dira urrutiagoko haranetakoak, Eliçondo (3), Legasa (1), Zabala (Mañeru), %3’3 dira urrutiko ibar hauetakoak. Bestalde, Burguete abizena behin bakarrik agertzen da. Era berean, deigarria da Aezkoako herrien izen hain

1 Parentesi artean agertzen da zenbat aldiz agertzen diren idatzirik. Portzentaia osatzeko falta dena bestelako jatorriari dagokio.

gutxi agertzea. Ibar osoan, 1644. urteko Apeamenduan Aezkoako hiru herri izen besterik ez dugu: “Sancho de Abaurrea” eta “Miguel eta Sancho de Garralda”, %1’3-a besterik ez.

Hona laburbildurik:

Erroibarkoak:	% 35’5
Artzibarkoak:	% 8’6
Esteribarkoak:	% 1’3
Arriagoitikoak:	% 1’3
Eguesibarkoak:	% 1’3
Aezkoakoak:	% 1’3
Lizoaingoak:	% 0’7
Urraul Goitikoak:	% 0’7
Urrutiko haranetakoak:	% 3’3

1726. urtean, berriz, honako hauek ditugu: 57 aldiz agertzen dira Erroibarko herri izenak, %36’5 osotara, horrela banaturik: Erro (14), Ardaiz (12), Linçoin (9), Eznoz (6), Cilbeti (5), Olondriz (3), Viscarret (2), Loiçu (2), Mezquiriz (1), Espinal (1).

Gainerako haran eta herrietatik ere badaude, hona zerrendaturik Artzibarkoak lehenik, ibar honetakoak baitira hurrengo gehienak: Oroz (5), Saragueta (5), Equiza (5), Lusarrecoa (Lusarreta) (4), Lacabe (4), Arrieta (4), Azparren (2), Galduroz (1), Usoz (1), Zazpe (1), Imizcoz (1). Osotara, %21’1 dira.

Maiztasunean, Esteribarkoak dira hurrengoak: Errea (5), Urtasun (4), Eugui (4), Egozcue (2), Irure (2), Ilarraz (1), Ezquiroz (1). Osotara, %12’17. Azkenik, Eguesibarko bat dugu: Elcano, Iruñerriko beste bat: Artica eta Longidako beste bat: Echay (1).

Alta, badira Ultzama aldekoen bat: Iraizoz (1), Arraiz (1) eta Olaibarko beste bat: Beraiz (1). Batzuetan urrutiagoak ere: Bidaurreta. Azkenik, Aezkoako bi herri izen agertzen dira: “Juan eta Martin de Garralda”.

Laburbilduz:

Erroibarkoak:	% 36’5
Artzibarkoak:	% 21’7
Esteribarkoak:	% 12’7
Aezkoakoak:	% 1’2
Iruñerrikoak:	% 1’9
Urrutiko haranetakoak:	% 2’5

Bi dokumentu hauetako datuak parekatzen baditugu, ikus dezakegu XVIII. mendean Artzibarko eta inguruko haranetako toponimo gehiago agertzen zirela XVII. mendean baino, eta hori, jendearen mugikortasunaren erakusgarri dateke.

3. Erroibar eta inguruko haranetako hartu-emanak

Aurrean aipaturiko datu hauek interesgarriak dira jendearen mugikortasunaz jakiteko eta erkidegoaren harremanak nondik norakoak diren jakiteko. Era berean, lagungarriak izan daitezke Erroibarko hizkeraren harremanaz edo nolakotasunaz datu gehiago izateko.

Lehenengo eta behin azpimarratu behar da, lehenik Erroibar bereko herri ize-nak direla maiztasun handien dutenak. Bigarrenik, Artzibarko herri-izenak ditugu, XVIII. mendean XVII.ean baino gehiago. Hirugarrenik, azpimarratu behar da hegoaldekiko ibarrekin dagoen harreman oparoa, alegia Lizoain, Esteribar, Eguesibar eta Arriasoiti ibarrekin.

Agiri hauen bidez frogatzen da Erroibarko harremanak Artzibar, Lizoain eta Esteribarrekin sendoagoak zirela, esango genuke hegoaldeko haranekin iparraldekoekin baino arruntagoa zela. Honako herri hauek: *Elcano, Urricelqui, Zunzarren, Laboa, Arteta, Redin, Arleta* benetan urruti xamar daude Erroibarko herrietatik, eta egun, oso biztanle gutxi izateaz gain, hartu-eman gutxi dugu horiekin. Baina gauzak ez ziren horrela lehenago, itxura denez. Irigaraik (1979) bildutako erretrauetan hegoaldeko herriekiko lotura nabarmenki agertzen da (ik. baita Ibarra 2000: 27) herri horietako jendearen goitizenak eta esamoldeak agertzen baitira Irozko bertsoetan.

Kontuan har bedi oraingo errepidea Zubiritik Aurizperrira doana 1878. urtean eraiki zela, nahiz hau beti Frantziako bidea izan den. Dena den, Iruñera doan bidea, Lizoain eta Arriasoitiren barna doana, garrantzi handia izanen zuen. Baliteke Agoitz, Urrotz eta Iruñerriko feriak eta merkatuek eragina izatea honetan ere (cf. Camino 1997: 109).

Bestalde, eta dialektologia alorrean, Caminok berriki (1999, 2000) burututako ikerketan, Goñerriko hizkeraren inguruan egindako lanean Nafarroako Pirineotako alderdia bai eta Iruñe ondoko ibarrak aztertzen ditu, eta lan honen ondorio bat da Eguesibarko euskara, Artzibarkoaren oso iduria dela eta aldeak badaude ere, bate-ratsu datorrela Esteribar eta Erroibarkoarekin ere. Ondorio bera jasotzen du Salaberrik (2000: 882) Iruñerriko eta inguruko ibarretako euskara aztertzean.

Artikulu honen bidez, Erroibarrek, Artzibarrekin, Lizoainekin eta Arriasoitirekin duen harremana handia zela frogatu dugu. Baina, hein berean, Aezkoarekin izandako harreman urria azpimarratu nahi izan dugu. Gaur Erroibarrek Aezkoarekin badu hartu-eman eta honen arrazoi bat da eskola, Erroibarko ipar herrietako eskola Garraldan kokatzen da, eta hor haurrek elkar ezagutzen dute, eta harreman berririk sortzen dituzte, baina mende batzuk lehenago ez dugu uste horrela zirenik gauzak.

Caminok (1997: 109) ere hau berresten du:

Erroibar dugu Aezkoa ondoan den beste ibarra. Auritz, lehenengo denboretan Erroibaren barrenean egon zena, Garraldako mugan dago, eta hartu-eman izan du aetzekin. Egun, XX. mendearen bukaeran Erroibarrek hartu-eman handia du Aezkoarekin, baina lehen gauzak horrela ote ziren esan diezagukeen lekukotasunik ez dugu biltzea lortu ia.

Guk lan honen bidez, Aezkoako abizen edota herri gutxi agertzen direla nabarmendu dugu, eta ez hemen bakarrik. Bestelako lan batzuetan ere gauza bera testiga-

tu dugu. Esaterako, badugu Mezkirizko (Erroibar) etxe guztietako zuhaitz jenealoji-koa egina, elizako Bataioko liburuan oinarritua, eta hor abizenez gain, lau mendetan zehar XVII. mendetik gure egunak arte, jendea nongoa zen agertzen da, ezkontzen arteko hartu-emanen bidez etab. Liburu hauek ezkontideen mugikortasunaz mintzo zaizkigu eta deigarria da Aezkoako herrietako zein jende gutxi agertzen den.

Bestalde, Caminok frogatzen duenez (1997: 109), Mezkirizko etxe izenek ez du- te parekotasun handirik Aezkoakoekin, kasu gehienetan jabearen izena baitarama- te Erroibarkoek. Etxe-izenez gehiago jakiteko ik. Ibarra (2000: 27, 28, 29). Ibar ho- netako zaharren testigantzek ere iltze berean jotzen dute, alegia, gure egunotako zaharrek dioskutenez, hartu-eman gutiago izan dira Aezkoako herriekin Artzibarko- ekin baino. Kontuan har bedi Iruñera joateko bide bat zela Erroibar zeharkatzen zuena, baina Agoitz, Lizoain, Arriasgoiti eta Eguesibarren gaindi zihoana ere ezin bazter daiteke, eta hori zen beste komunikabide bat Iruñera iristeko.

4. Ondorioak

Honainokoa laburbilduz, Erroibarko deituretan, ibar bereko gainerako herriak agertzen dira lehenik, eta gero, portzentai handian Artzibarkoak². Kontuan har be- di, geografikoki, Artzibar mendian barna oso hurbil gelditzen dela Erroibartik eta betidanik harreman handia izan dutela bion artean, eta Erroibarko etxe gehienetan ahaideak dituztela Artzibarren.

Jakina denez, baldintza geografikoa eragile objektiboa da, mendixkak, mendi ka- teak, ibaiak, lautadak edo basoak daudenez argitu behar dugu, jendea nondik nora joaten zen jakiteko. Izan ere, hauek guztiek eragina dute hizkuntzan. Zer esanik ez historiaz, leku garrantzitsu bat betetzen du hizkuntzaren nolakotasunean, eta lantxo honek hutsune horren betegarri xumea nahi luke izan, hein batean bederen.

Geografia kontuan harturik, Aezkoa urruti gelditzen da Erroibartik, Mezkirizko gaina igo behar da hara joateko, eta gainera ez da mugakidea. Aezkoak mugatzen du Auritzekin eta Orreagarekin alde batetik, ez Erroibarrekin, eta ondorioz, distantzia arrazoi bat dateke, orografia menditsua baztertu gabe. Bestetik, hegoaldeko haran horietan zehar Iruñera heltzen zen, eta aldiz, Aezkoak ez zuen urrutiago inolako gu- ne garrantzitsurik hori zeharkatzeko. Ez dugu ahaztu behar Iruñeak egiten zuen bu- ruzagi papera, azken batean salerosketak eta administrazio aferetarako gunea izan da beti.

Herritarren mugikortasunaz, eta inguruetako haranetako jendearen etorreraz bu- rutu dira hainbat lan, eta horrela, Zaraitzun egindako batean ezkontideen mugikor- tasunaz mintzo zaigu eta hauxe frogatzen da:

La gran mayoría de las procedencias son salacencas y, especialmente, de la misma subco- marca. Incluso los movimientos dentro del valle son claramente preponderantes entre subco- marcas vecinas: es decir, que en la unidad geográfica y social que es el Valle se notan, a pesar de todo, los efectos de la distancia (Toja & Luna 1987: 394-5)

² Eta horrek argi frogatzen du ibar horretan betidanik izan den harremana. Neronek –adibide oso esa- nahigarria ez bada ere– aitetamak Erroibarkoak ditut, baina aitatxi eta amaxi, bien partetik, Artzibarkoak dira.

Azkenik, euskararen galbidean izan dezake harremana honek. Gure herrian eta etxean ikusi ditugu honelakoak. Esaterako nire aitatxi, Lakabekoa zena, Mezkiritzera etorri zenean kontatzen zuen denek, gehienek zekitelako euskara, eta herriko batzarrak euskaraz egiten zirela eta mutilak pilotaz aritzean beti euskaraz kontatzen zutela. Bera zen erdaldun bakarrenetarikoa, eta nahiz amatxi euskalduna izan, seme alabei gutxi hitzegin zien euskaraz. Dударik gabe, hau ez zen arrazoi bakarra izan, baina, eragile izan delakoan gaude.

Izan ere, azken mende honetan Artzibarko euskararen egoera Erroibarkoa baino larriagoa izan da, ibar handia bada ere, herri guztietan erdara nagusitu da Erroibarren baino lehenago. Azkenean, horko jendea gure ibarretara etortzen zenean, ezkontzak zirela medio, galbide honen eragileak bihurtu ziren dударik gabe.

Año 1644 Legajo 22 Carpeta 7

Seccion de estadística

Apeo del numero de casas, vecinos y moradores del Valle de Erro, compenso en la Merindad de Sangüesa.

Linçoin

Primeramente la casa del dicho propietario de ella llamada de Patizar, joatizar, jobabizar?

Otra casa de Miguel de Garro llamada Primorena

Otra de Juan de Linçoin llamada Alcaterena

Otra de Martin de Hualde llamada Hualde

De P. de Saigos llamada Camarguina

De Martin de Cilbeti llamada Buruchiquina

De Juanes de Ardaiz llamada Ernautena

De Nicolas de Recalde llamada Garaycochea

De Pedro Luxea de Lusarreta llamada Oçacoa

En el mismo lugar del dicho Luxea de Lussarreta llamada Echebarria

De otra casa llamada Aroçarena derruida inhabitable

Dichas casas son onze abitables y la otra ynabitable.

Çilbeti

De Martin de Urrutia llamada la de Urrutia

De Miguel de Cilbeti llamada Ansorena

De Garcia de Yrari (sic) llamada Ansorena

De Juanes de Ardaiz llamada Ernautena

De Martín de Cilbeti llamada Michetena

De Martín de la Orden llamada Muticorena

Otra casa llamada de la Orden que es de la casa Real de la señora de Roncesballes que todas Las dichas casa son siete y otros tantos vezinos, con la dicha de Roncesvalles.

Erro

Primeramente la casa de Martin de Arrieta llamada Arrietarena

Item otra cassa sin noble llamada Echaucena

“ de Martin de Mezquiriz llamada Martinena

“ de Martin de Çalba llamada Atabarren

“ Po. de Urrutia llamada Yñigorena

“ Miguel de Arreche llamada Orocharena

“ Miguel de Viscarret llamada Esanorena

“ Juanes de Saigos llamada Barasoaynena

“ S. de Laboa llamada Laboacoa con casero

“ Juanes de Loiçu llamada Senperrena

- “ Nicolas de Elicondo llamada Çabalecoa
- “ Sancho de Mezquiriz llamada Guilentorena
- “ Martin de Erro llamada Arozteguiçarrecoa
- “ Casa de la abadia vive el abad
- “ Palacio de señor de Ureta tiene Don Jeronimo de Ybero por residente
- “ Palacio del Señor de Larrayngo con casero
- “ M. de Erro casero llamada Capataguinena

Dichas casas son diez y ocho con la dicha de la abadia y con los dichos dos palacios abitables y otros tantos vezinos.

18 casas, y en ellas 14 vezinos 2 palacios, 1 clerigo, 1 casero.

Olondriz

Primeramente la casa de la Abadia, de dicho lugar donde vive el abad

Item otra casa de Sancho de Espinal llamada Michetena

“ de Tristant de Olondriz llamada Tristantena

“ Martin de Espinal llamada Balenciarena

“ Juanes de Olondriz llamada Ezquerrena

“ Miguel de Imizcoz llamada Artayzena

“ Sancho de Elicondo llamada Saquetena

“ Miguel de Olondriz llamada Eunçicoa

“ Juan de Erro llamada Juantorena

“ Sancho de Viscarret llamada Sançetena

“ Miguel de Cilbeti llamada Aguedarena

“ otra casa llamada Alcaçterena cerrada por no estar abitabile

“ otra casa llamada Meriorena cerrada por no estar abitabile

“ un pajar y lugar de Saragueta que no es buinal.?

Todas las dichas casas son catorce con la dicha casa del abad y el dicho pajar.

Larrayngo, Gurbiçar

En dicho lugar de Larraingoa declaro que no ay mas que dicha casa con su iglesia y el dueño y señor del Juan de Erro y Larrayngo que vive en la dicha casa y tambien en dicho lugar de Gurbizar no hay sino una casa con su iglesia y el dueño y señor es don Juan de Arizaleta del lugar de Cubiri de la valle Esteribar quien es dueño de dicho lugar de Gurbicar donde vive un casero con su familia y ambos dichos lugares, dichos lugares no pagan niguñas derramas.

Ardaiz

Primeramente la casa de la abadia donde vive el abbad del dicho lugar.

Item otra casa de Juanes de Yrigoyen llamada Çarcume

“ de Juanes de Çubiri llamada Dorrecoa

“ de Pedro de Lacabe Lacaberena

“ de Juanes de Baraztain Çuriarena

“ de Martin de Ardaiz llamada Ardanchena

“ Miguel de Urrizelqui llamada Sastrearena

- “ Pedro de Zunzarren llamada Sancho Ganbara
- “ Sancho de Artozqui llamada Çalbarena
- “ Pedro de Burguete llamada Moçarena
- “ viuda de Juan de Ardaiz llamada Patiarena
- “ otra casa de la dicha viuda que no vive nadie ni ay fuego en ella

Son doze casa con la dicha casa del dicho abad y con la viuda. 12 casas, 10 vezinos, 1 abitabile, 1 cerrada

Ayncioa y Loyçu

- Primeramente la casa de Miguel de Valança llamada Garrorena
- Item la casa de Miguel de Saragueta llamada Carrico
- “ Juaries de Elcano llamada Soldadorenna
- “ Martin de Loiçu llamada Juantorenna
- “ Juanes de Baroztayn llamada Lusarrecoa
- “ Juanes de Loyçu llamada Placarena
- “ Miguel de Zandueta llamada Giltorenna
- “ Pedro de Çubiri llamada Milanenna
- “ Miguel de Elicalde llamada Elicalde
- “ Miguel de Azcarate llamada Dorrerenna
- “ Miguel de Ayncioa llamada Alquicarenna
- “ Juanes de Çalba difunto llamada Machinenna

Loyçu

- Item otra casa de Miguel de Olondriz y de Loyçu llamada Beyticoa
- “ Juanes de Lyçoayn llamada Michelcorena
- “ Juanes de Esnoz llamada Mostruarenna
- “ Miguel de Ardaiz llamada Garaycoa

Los cuales son diezyséis casa vezinales y abitables y otros tantos vezinos.

Esnos

- Primeramente la casa de la Abbadia donde vive el abad
- Item otra casa de Juanes de Elicondo llamada Pascualenna
- “ Juanes de Yrigoyen llamada Marichenna
- “ Martin de Çandueta llamada Yrigoyen
- “ Juanes de Equiza llamada Echeandia
- “ Juanes de Mezquiriz llamada Moçarenna
- “ Martin de Erro llamada Yribarrren
- “ Juanes de Urtasun llamada Echacarrecoa
- “ Miguel de Esnos llamada Camarrenna
- “ Sancho de Cilbeti llamada Gintorenna
- “ Miguel de Michetenna llamada Michetenna
- “ Juanes de Vixcarret llamada Arochenna

Todas las cuales don doze casas, 11 vezinos fuera del abbad.

Viscarret

Item la casa de la Abadia, vive el abbad
“ Juanes de Linçoin llamada Yndacoa
“ Martin de Vixcarret llamada Sastresamerena
“ Juanes de Erro Erdico llamada Erdicorena
“ Miguel de Olondriz llamada Guerendaynena
“ Sancho de Vixcarret llamada Ansorena
“ Juanes de Esnoz llamada Çapataguinarena
“ Miguel de Linçoin llamada Miguelicorena
“ Juanes de Sola llamada Balachena
“ Miguel de Viscarret llamada Jurrarena
“ Juan de Urroz llamada Barberena
“ Juanes de Esnoz llamada Çapataguinarena
“ Miguel de Sola llamada Perochena
“ Fernando de Linçoin llamada Cifrarena
“ un Palacio del dicho lugar que es del dueño? de Eugui canonigo de Roncesvalles y lo tiene su casero, todas las cuales son 16 casas con la dicha casa de la abadia y el dicho palacio, todas abitables.

Mezquiriz

Primeramente la casa de la Abadia del dicho lugar, donde vive el abbad.
Otra casa de Juanes de Erro y Apeztegui llamada Apezteguia
“ Miguel de Olondriz llamada Catalinena
“ De Beltran de Zabalza llamada Adamerena
“ De Miguel de Vixcarret llamada del Tecedor
“ De Garcia de Elcano llamada Martinena
“ Juanes de Legasa llamada Mongelosena
“ De Juanes de Esnoz llamada Condearena
“ Martin de Mezquiriz llamada Juriorena
“ Martin Sala y Mezquiriz llamada Garchotena
“ J.es de Arteta llamada Mercatariarena
“ Martin de Mezquiriz llamada Curiarena
y otra casa esta cerrada sin abitacion pero abitabile
y que todas las dichas casa son doze con la dicha casa del abbad y abitabile

Espinal

Primeramente al casa del vicario del dicho lugar donde vive el vicario
Item otra de Juanes de Saragueta llamada Martinarena
“ Juanes de Nequosa? llamada enutesena??
“ Garcia de Berrueta llamada Elizquibel
“ Sancho de Abaurrea llamada Juanarena
“ Sancho de Esnoz llamada Sastrearena
“ Martin de Ricalde llamada Recaldecoa
“ cassita decayda y defecha ynabitabile llamada Golea?

- “ Beltran de Jassa? llamada Beltranena
 - “ Juanes de Ybañez llamada Ybañesena
 - “ Pedro de Cilbeti llamada Po.aizarena?
 - “ M. de Espinal llamada Orçaçoarena
 - “ Pedro de Aldaba llamada Sanchetena
 - “ Garcia de Cabala llamada Tornariarena
 - “ Juanes de San Julian llamada Çatarena
 - “ Juanes de Berrueta llamada Danborinena
 - “ Martin de Echay llamada Cíbarrena?
 - “ Miguel de Garralda llamada Apaticoa
 - “ Martin de Urdaniz llamada Cubrarena
 - “ Juanes de Yribarren llamada Martin Garcarena
 - “ Sancho de Abaurrea llamada Curruchina??
 - “ Miguel de Espinal llamada Echeberricoa
 - “ Juanes de Echegoyen llamada Chosne
 - “ Juanes de Gorrueta cerrada, no esta abitabile
 - “ Miguel de Saragueta llamada Percañena
 - “ Juanes de Redin llamada Enecorena
 - “ Juanes de Espinal llamada Sarajero (sic)
 - “ Miguel de Espinal? tiene casero llamada Gracitorena
 - “ Martin de Ayncioa Barbarosena
 - “ del Abad de Jasso mora su casero llamada Trustarena?
 - “ Sancho de Garralda llamada Garaycena
 - “ Juanes de elduamoça' (?) su casero Juanes aleman llamada Ernautena
 - “ Juanes de Yraizoz llamada Mocarena
 - “ Garcia de Azpilicueta llamada Andrebaterena?
- Casa Pasquilena, sin madera ni tablas, todas las cuales son treinta y cinco casa con la del dicho vicario.

Todas las cuales son treinta y cinco casas con la del dicho vicario. 31 vezinos, 3 cerradas, 1 abad.

Hureta

El palacio llamado Ureta esta separado de los lugares de dicha valle, cuyo dueño es Don Antonio de Ureta

Año 1726 Legajo 24 Carpeta 31

Seccion de estadística

Valle de Erro apeamiento de los vezinos y moradores de dicho Valle Herro, compenso en la Merindad de Sanguesa, echo por el señor Joseph de Santesteban y Torres.

Espinal

Casa de Androbeta, dueño Juan Azpeliqueta
Casa de Berrueta, dueño Juan de Julian
Casa de Juanarena, dueño Martin de Erro
Casa de Sastrearena, dueño Miguel de Beraiz
Casa de Recalde, dueño Miguel de Oroz
Casa de Botascol, dueño Graciana de Iraizoz
Casa de Alonsarena, dueño de Miguel de Iriarte
Casa de Ernautt, dueño Juan de Vidariz
Casa de Buruzuri, dueño Cathalina de Saragueta
Casa de Beraiz, dueño Beltran de Azpeliqueta
Casa Vicarial, de la Iglesia
Casa de Beltran, dueño Juan de Elguera
Casa de Echeberribeteoca, vive Bernardo de Erro y es dueña Maria de Lacabe
Casa de Alcatezarra, dueño Juan de Erro
Casa de Montañarena, dueño Bernardo Salaberri
Casa de Echezarra, dueño Martin de Lacabe
Casa de Ibañez, dueño Juan de Garde
Casa de Saigonena, dueño Juan de Azpeliqueta
Casa de Arizarena, dueño Martin de Saragueta
Casa de Enecorena, dueño Pedro Lacabe
Casa de Aquedarena, dueño Bernardo Zabalza
Casa Percain, dueño Martin de Jasso
Casa de Echerandoy, dueño Juan de Garralda
Casa de Llallarena, dueño Beltran de Erro
Casa de Errebesena, dueño Miguel de Granada
Casa de Comayena, dueño Pedro Zilbeti
Casa de Echeverria, dueño Graciosa de Oroz
Casa de Tornaria, dueño Beltran de Ibarrola
Casa de Zatarena, dueño Juan de San Julian
Casa de Martin de Garzia, dueño Pedro de Urrutia
Casa de Damborinerena, dueño Martin de Urtasun
Casa de Zubirirena, dueño Maria de Lacabe
Casa de Apatt, dueño Martin de Garralda
Casa de Ziburiena, dueño Juan de Zilbeti

31 vecinos, 3 caseros, 1 molino, 1 vicario.

Mezquiriz

Casa Garchotena, dueño Sancho del Cano³
 Casa de Antonena, dueño Juan de Urtasun
 Casa de Adameneco, dueño Juan de Eznoz
 Casa de Zurianequa, dueño Juan de Ilarraz
 Casa Aposena, dueño Martin de Oroz
 Casa de Echeverricoa, dueño Sancho de Ugalde
 Casa de Conderena, dueño Martin de Arrieta
 Casa de Mosozorena, dueño Juan de Zilbeti
 “Lellaneco, dueño Juan de Viscarret
 “Martirena, dueño Martin de Eznoz
 “Zizilearena, dueño Sancho de Biscarret
 Casa Abacial, Juan de Linzoain y es la casa de la iglesia.

Once casas mas la abadía en la que vive dicho abad.

Guerendiain⁴

En el lugar de Biscarret...

Casa de Acotain, dueño Juan de Eznoz
 “Garciaarena, dueño Garcia de Urrutia
 “Palacio su dueño es Pedro de Eugui, es palacio de Cabo de Armeria⁵
 “casa de Indacoa dueño Miguel de Aguirre, rejidor actual.
 “Casa de Gilentorena, vive Sancho de Equiza por casero⁶.
 “Casa de Lusiarena, dueño Leon de Ezpelegui
 “Capitanena, dueño Martin de Linzoain⁷
 “Mariquirena, dueño Sancho de Equiza
 “Arozarena, dueño Pedro de Ezquiros
 “Fernandorena, dueño Guilen de Eznoz
 “Miguelicorena, dueño Juan de Zilveti
 “Baldechena, Graciana de Ugalde, viuda de Pedro de Eugui
 “Ansoarena, dueño Juan de Erro
 “Erdicorena, dueño Juan de Lusarreta
 “Echeberria, dueño Pedro de Eugui, es dueño del palacio, y vive de casero Juan de Recalde

3 Seguruenik “de Elcano” da, baina horrela idatzirik agertzen da.

4 Izenburuan Guerendiain agertzen da, baina testua hasten denean “En el lugar de Biscarret. ..”

5 “y está exento de derramas, pero que el dicho Pedro de Eugui no deve gozar de dicha esención por ser adbenedizo a dicho palacio y no haver provado su calidad”.

6 es propiedad de la capellania que goza D. Francisco Ansotegui teniente de cura de s. Juan de Pamplona.

7 Hurrengo egunean Lintzoainera doa “apareció el dicho Juan de Eznoz Abad del lugar de Biscarret y Ju. de Herro vecino y dicho Abad dijo a dicho Apeador que en casa *Capitanena* que es la del numero siete haúa un casero ademas del dueño propietario y que tenia su hogar y cuartos separados y se llama Pedro de Urrutia”.

“ Abadia, es propiedad de la Iglesia, Vive Juan de Eznoz de Abad
“ Echechiqia, es propiedad del dicho, Palaciano, Pedro de Eugui Palaciano y vive por casera Margarita de Erro, las cuales dijeron ser pobres de solemnidad

Hay 13 vezinos propietarios, tres caseros y el uno pobre. Con ello son 4 caseros. 13 vecinos y el abad.

Molino y Venta

Joseph de Santesteban continuando con su visita y Apeo en la compañía de mi el infraescrito y del dicho Juan de Urrutia Alcalde de este valle de Erro al Palacio o lugar de Uretta en el qual tien por casero y arrendador de dicho Palazio y su pertenecido Juan de Ardaiz, vecino que dijo ser del lugar de Ymizcoz conpreno en este valle, y que en el tiene su cassa propia con su casero mediante juramento declaro que dicho Palazio del Lugar de Urteta es de D. Juan de Ureta vezino de la Villa de Agoiz y que tiene un Molino farinero, y una benta mas a bajo pertenezientes a dicho Palazio con su monte y termino redondo que por todo paga doscientos rovos de trigo, y en dicha venta y molino tiene puestos sus arrendadores y habiendo pasado sus regidores a reconocer dicho molino y Ventta, allo que en el dicho Molino estaua Juan de Marcos Molinero, y este tiene su hogar y en la venta bivia asi bien Juan de Azparren y que tiene tambien un hogar solo, y haviendo visto dicho Palazio allo asi bien que solo abia un fuego, y asi el dicho casero, como el dicho alcalde declararon que el dicho referido Palazio y venta an sido y son libres de todo genero de Contribuzion y tambien en el referido molino sin que sus dueños ni caseros paguen nunca cossa alguna y para que de ello conste su mandato hacer auto y firmo...

Linzuin

Primeramente la casa de Primarena, vive Martin de Urrutia
Item otra casa de Bazterrarena, Martin de Errea
Otra que vive por casero Garcia de Bizcarrett
Casa Martinotena, y vive Graciana de Espinal. Viuda de Miguel de Arrieta
“ de Sastrearena, vive Miguel de Azcarate
“ de Burchiquina, vive Ju. de Urrutia
“ Echeberria, Beltran de Arraiz
“ Abacial, vive Pedro Peraiz
“ Caserena, vive don Pe. de Erro
“ Ernautena, vive Martin de Eznoz
“ Obarena vive Ju. De Egozcue
“ Orzacoa, vive Ju. De Lusarreta

10 casas vecinales y en ellas 9 vecinos propietarios y dos caseros.

Zilbeti

Ordenacua, es de Roncesvalles, es esenpta de todo genero de derramas, vive por casero Juan de Lisparro y solo tiene un ogar.

La casa de la Vicaria, vive don Juan de Zaspé, era vicario
 Item la casa de Ernautena, Martín de Zilbeti
 Item la casa de Ansorena, dueño Juan de Errea
 Item la casa de Juan de Errazurena, vive Martín de Linzoain, su dueño
 Casa de Leoncorena, vive Martín de Linzoain
 Casa de Urriticoa, Estevan de Erro su dueño
 Siete casas, una de la Real Cassa de Roncesballes y la septima de la Vicaria.

Herro

La casa de Zalbarena, Tomas de Larralde, es palacio y su dueño es Joseph de Echaide, vecino de Puente Iarrina, como tal palacio es esento de todo genero de derramas y contribuciones.
 Iñigorena, dueño Pedro de Loizu
 Esanorena, dueño Guillen de Ardaiz
 Semperrena, dueño Fernando de Linzoain
 Guillentorena, Juan de Ardaiz
 Casa de Arozteguizarra, su dueño es Pedro de Linzuain
 Zabalecoa, dueño Juan de Errea
 Casa de laBoa, dicen es palacio y esta esento de contribuciones y derramas
 Casa de Barasonena, dueño Martín de Zenoz
 Casa de Orcharena, dueño Miguel de Fermín de Garciarena, vecino de Pamplona, viven por caseros Juan de Erro y Miguel de Linzuain, cuartos separados.
 Casa de Zapatariquiñena, es de Miguel de Zubiri
 Casa de Echauzena, dueño Miguel de Ardaiz
 Casa de Arritarena, vive Martín de Linzoain
 “ Echeberricoa de Juan de Errea, vive por casero Juan de Urtasun
 “ Juancherena, dueño Miguel de Zubiri
 “ Marterena, dueño Juan de Elbetea
 “ Palacio su dueño es Juan de Ibero
 “ Casa Atabarrena, Vive Sancho de Mururre?
 “ Abacial, vive Juan de Errea

Diezinuebe casas, 12 vezinos son esenptas cuatro y ay siete caseros y la abadia

Olondiz

Primeramente la casa de Sastrezarrarena, de Juan de Ardaiz
 La casa de Alcateneco, de Sancho de Olondiz
 “ Sangorena, de Martín de Irigoyen
 “ Michorena, de Antonio de Irure
 “ Otra de Antonio de Irure y vive Martín de Erro
 “ Sanzetena, vive Sancho de Azparren
 “ Erroinecoa, vive Juan de Elizondo y Cathalina de Ardaiz, la casa es propiedad de Martín de Oroz, vecino de Mezquiriz

“ Barberena de Martin de Irigoyen, vive por casero Fernando de Salaberri, maestro cirujano

Echechiquia de Juan de Arrieta, casera Isabel de Olondriz, viuda y pobre de solemnidad

“ La casa de Beunza, vive Juan de Arrieta

“ Sacatena, dueño Juan de Ardaiz

“ Aguedarena, vive Sancho de Galduroz

“ Ezquerrena, Martin del Cano

“ La casa de Artaizena, Martin de Olondriz

“ Tomasena, Martin de Ardaiz, Regidor

Azpetegua (sic), de la iglesia

Molino Farinero, vive don Juan de Gascon, Frances

Onze vecinos propietarios, zinco caseros, una que no bive nadie mas el molino farinero.

Gurbilzar

Doñarena, vive Martin de Vidaurreta

Lasarena, vive Juan de Erro

Echandia, vive con dos caseros con dos fuegos, que son Juan de Soto y Elondriz, dicho El lugar de Gurbilzar es propio de Francisco de Ibero, residente en la ciudad de Zaragoza y que en dichas casa habitan como arrendatarios de dicho lugar y que sus tierras es libre de toda derramas ni ellos ni sus dueños paguen cosa alguna

Urniza

Dos casas, viven por caseros Fernando Villanueva, Miguel de Herro con sus familias y fuegos separados, y en ella la serora, y dijeron llamarse Graciana de Imizcoz

El lugar de Urniza es del conde de Ablitas y esta libre de cualquier derrama

Larraingoa

Vivian tres caseros llamados:

Sancho de Bidaurreta

Fernando de Bidaurreta

Pedro de Arttica

y un pobre

Declaran que dicho palacio es del mencionado Don Francisco Ibero, esta libre de Derramas

Ardaiz

Primeramente la casa de Sastrearena, vive Miguel de Ardaiz

Item otra de Mosorena, vive Sancho de Ardaiz

“ Apezteguia, vive el Abad

“ Ardanchena, vive Martin de Zubiri
 “ Sanchomarena, vive Ramon de Zabala
 “ Pattarena, vive Bartolome de Agorreta
 “ de Echetoa, dueño Bartolome Gorreta, caseros Martin de Ardaiz y su mujer
 “ Salbarena, vive Pedro de Arraiz
 “ Zurianecoa, Martin de Loizu
 “ Zarcumarena, Ignacio de Vizcay
 “ Dorrocoa, Sancho de Zubiri
 La Caberena⁸, Juan de Ardaiz, declaran su molino farinero distante cerca de media legua

Hay diez vecino, un casero, el abad y un molino.

Loizu

Casa de Garaicoa, vive Ignacio de Villanueva
 Casa Maistrerena, vive Juan de Equiza, y es dueño de Juan de Lisparro?, residente el Zilbeti
 Casa de Ariendena, vive Miguel de Linzoain
 Casa de Beiticoa, Martin de Villanueva, hay tres vecinos y un casero
 Ay 3 vecinos y un casero

Ainzioa

Primeramente la casa de Arranegui, vive Pedro de Zubiri
 Item la casa de Arniñarena, Juan de Zanduetta
 “ Casa Macharena, vive Martin de Ainzioa
 “ Casa Balanzarena, Vive Iñigo de Balanza
 “ Dorrorena, Vive Juan de Villanueva
 “ Zarecorena, Juan de Zubiri su dueño
 “ Siltorena, Juan de Saragueta
 “ Lusarrecoa, Martin de Badostain y es dueño Juan de Ardaiz, residente en el palacio de Ureta
 “ Santorena, vive Miguel de Erro, su dueño propietario
 “ Alquisena, vive Pasqual de Elizari
 “ Soldarena, vive Martin de Zanduetta
 “ Elizaldecoa, vive Martin de Badostain su dueño
 “ Abadia, Sancho de Oroz que era Abad
 Hay once vecinos, el casero y el abbad

Esnoz

Primeramente Irigoyena, vive Martin de Villanueva
 Casa de Echandia, vive Sancho de Zubiri

8 Ohar bedi nola idazten diren La-tik hasitako hauek: La caberena (Lakabe), La Boa (Laboa)

Casa de Eunzea, Miguel de Urricain, es propiedad de Miguel de Equiza

“ Apezteguia, vive Martin del Cano

“ Sastrerena, vive de Casero Juan de Granada, y es Sancho de Zubiri

“ de Pascalena, vive Juan de Saragueta

“ Andrarena, vive Juan de Zalba, su dueño

“ Marichena, vive Miguel de Equiza

“ Zirañena, Vive Sancho de Lusarreta

“ Gilontrorena, vive Miguel de Usoz

“ de Juan de Zalba, vive por casero Juan de Saragueta, pobre de solemnidad

“ Princerena, vive Martin de Urtasun

“ Orochena, vive Miguel de Zubiri

“ Iribarren, Vive Sancho de Erro

En el lugar junto a la ermita que llaman de nuestra señora de Monsarrate² en el cual vive de limosna Maria del Cano, por serora de dicha ermita, sin otra renta que la que coge como limosna.

Hay 14 casas, diez vecinos, tres caseros, el abad, y uno de los caseros pobres

Bibliografía

- BARANDIARAN, J.M.; 1926, "Pueblo de Aurizperri (Espinal)", *AEF* VI, 1-18.
- BATZUK.; 1995, "Antropónimos de Burgos y su alfoz en los siglos X al XII", en *Antroponimia y sociedad*, Valladolid-Santiago Compostela, P.U.
- BELASKO, M.; 1996, *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades*, Pamiela argitaletxea.
- BOURIN, M.; 2001, "La escritura del nombre propio y la aparición de una antroponimización de muchos elementos en Europa occidental (siglos XI y XII)" en CHRISTIN, A.M. (compiladora); *El nombre propio*, Ed. Gedisa.
- CAMINO, I.; 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- ; 1999-2000 "Goñibarko hizkera" (I eta II), *ASJU* 1999-1, 5-79 eta *ASJU* 2000-1, 65-137.
- CIERBIDE R.; 1998, "Onomástica de Bermeo según el censo de 1511", en *Studia Philologica. In Honorem Alfonso Irigoien*, 429-438.
- FORT M. R.; 1986, "Sobre onomástica aragonesa medieval", *Archivo de Filología Aragonesa* 34-35, 553-579.
- FRAGO, J. A.; 1977, "Nombres de oficio y situación social en al antroponimia", *Homenaje a Don Jose Maria Lacarra de Miguel*, 203-222.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, J.A.; 1995, "Antroponimia en Navarra y Rioja en los siglos X a XII", en *Antroponimia y Sociedad*, 283-297.
- GORROTXATEGI, M. & SALABERRI P.; 2000, *Euskal izendegia, Diccionario de nombres de pila*. Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza.
- IBARRA O.; 1991, Mezkirizko toponimiaz, *FLV* 58, 301-357.
- .; 1997, *Valle de Erro: historia, costumbres y lengua*, Gráficas Lizarra.
- .; 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*; Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
- IRIGARAI, A. & MITXELENA, L.; 1955, "Nombres vascos de persona", *ASJU* II, 107-127.
- IÑIGO A. & SALABERRI, P.; 1994, "Nafarroako antroponimia XVI. eta XVII. mendetan", *Euskera* 1994, 3, 1415-1424.
- IRIGARAI A.; 1979, "Rescaldos del euskera de Iroz (Valle de Esteribar, Navarra)", *FLV*, 31, 163 eta hur.
- KREMER, D.; 1988, "Onomástica e historia de la lengua", en *Actas del I Congreso internacional de historia de la lengua*, 1583-1612.
- LIBANO M. A.; 1998, "La numeración de las haciendas de las anteiglesias de Aramayona de 1510", en *Studia Philologica. In Honorem Alfonso Irigoien*, 467-479.
- MITXELENA L.; 1973, *Apellidos vascos*, Txertoa argit., Donostia.
- ; 1987; "Nota sobre los nombres de persona en la Navarra medieval", en *Palabras y Textos*, 119-140, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MITXELENA L. & YRIGARAY A.; 1955 "Nombres vascos de persona", *BAP*, 1995, 3-4, 405-425.
- MONTENEGRO, J.; 1995, "Antroponimia lebaniega en los siglos IX a XII", en *Antroponimia y Sociedad*, Valladolid-Santiago Compostela, P.U. 181-230.

- SALABERRI, P.; 2000, "Iruñerriko eta inguruko ibarretako euskararen gainean"; *Euskera* XLV, 3, 881-920.
- SARAGUETA, P.; 1981, "Mezkiritz (Erroibar)", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, nº 3, 5-36, Príncipe de Viana, Pamplona.
- TOJA, D.I. & LUNA F. 1987; "Movilidad marital en el valle del Salazar (Navarra)", *Antropología-Etnografía* 4, Eusko Ikaskuntza, 389-403.

LABURPENA

Artikulu honetan aztertzen dugu Erroibarko XVI. eta XVII. mendeetako antroponimia Apeamenduko bi txostenetan oinarrituz. Bereziki egitura hau duten antroponimoak aztertzen dira: pertsona izena + de + toponimoa. Antroponimia oinarri izanik, datu hauek mende hauetako gizartearen norabidea aztertzeke balio digute. Ondorioa da deitura gehienak ibar bereko herrietako izenak direla, eta bigarrenak maiztasunean Artzibarkoak direla, azken tokian hegoaldean kokaturiko haranak daudelarik. Merezi du azpimarratzea Aezkoako zein toponimo gutxi agertzen diren, horrek adierazten du iparraldean kokaturik dagoen haran honekiko harreman urria.

RESUMEN

El artículo analiza la antroponimia de los siglos XVII y XVIII del Valle de Erro, basada en dos documentos de Apeos. Se analizan los antropónimos, y especialmente los apellidos que responden a la estructura nombre de persona + de + topónimo. Estos datos que parten de la antroponimia nos sirven de análisis de los movimientos de la población durante estos siglos. Se concluye que la mayor parte de estos topónimos hacen referencia a los pueblos del mismo valle y en segunda proporción al valle colindante de Arce, seguido de Esteribar y valles situados al sur. Merece destacar la escasísima aparición de topónimos del valle de Aezkoa, lo cual nos indica una escasa relación con este enclave situado al Norte.

PALABRAS CLAVE

Antroponimia, Aezkoa, Erroibar, Artzibar, toponimia.

GITZ-HITZAK

Antroponimia, Aezcoa, Valle de Erro, Valle de Arce, toponimia.